



Joan den urteak 1.073 langabetu utzi ditu, 2008ak baino 234 gehiago

2009 urtean, azarotik abendura, Hernanin, zertxobait jaitsi zen langabezia; 2008an ez bezala. Langabezia batez ere igo da 35-39 urte bitarteko gizonezkoen artean.


KRISI ekonomikoaren ondorioak 2008 urte hasieran hasi ziren nabaritzen orokorrean, eta baita Hernanin ere. INEMen erregistratutako langabetu kopurua igotzen hasi zen hilabetetik hilabetara, eta ordutik, joera horri eutsi dio. Eta batez ere, 2009an izan du igoera gehien langabeziak. Joan den urteko datuei erreparatuta, Hernanik urtea, 1.073 langabeturekin amaitu duela ikusi daiteke, 2008an baino 234 gehiagorekin.

2007ko abenduan, 701 langabetu zeuden Hernanin; 2008an 839ra igo zen langabetu kopurua; eta 2009ko abenduan 1.073 zeuden.

Azarotik abendura zertxobait jaitsi

Orokorrean, 2008ko joera berari eutsi zion langabeziak 2009an. Bi urteetan, hilabetero langabetu gehiago erregistratu ziren INEMen, apiriletik ekainera bitartean izan ezik. Hiruhileko horretan, bi kasuetan, langabezia jaitsi egin zen, ohi bezala.

Ekainetik irailera, ordea, igo egin zen, eta igoera nabarmena izan zen 2009an, aurreko urtearekin konparatuta. Irailean 90 langabetu gehiago zeuden; guztira 1.015 (2008an 71 izan ziren garai horretan langabezian geratutakoak). Eta urte bukaerarako gero eta langabetu gehiago erregistratu ziren. Dena dela, 2009an azarotik abendura langabezia jaitsi egin zen, 2008an ez bezala. Azaroan 1.079 ziren langabetuak eta abenduan 1.073; 6 gutxiago. 2008an, berriz: azaroan 798 langabetu zeuden eta abenduan 839; 41 gehiago.



Ekainetik irailera langabezia igo egin da azken urteetan, eta igoera nabarmena izan zen 2009an. Irailean 90 langabetu gehiago zeuden; guztira 1.015 (2008an 71 izan ziren garai horretan langabezian geratutakoak).

Emakumezkoen artean, 30-34, 35-39 eta 55-59 adin tartean daude langabetu gehien: 80na pertsona. 2008tik ez da aldaketa haundirik izan, 30-34 adin tartean izan ezik; izan ere, 2008an, 57 langabetu zeuden eta orain 80.

35-39 urte bitarteko gizonezkoen artean igo da langabezia, batez ere

Azken urteetan erregistratu diren langabetu gehienak emakumezkoak izan dira: 2007ko abenduan, 701 langabetutik 450 emakumezkoak ziren; 2008an, 839 langabetutik 444 ziren emakumezkoak; eta azken urtean ere halaxe izan da, baina alde txikiare-

kin, zehazki, pertsona baten aldearekin: 2009ko abenduan, 1.073 langabetutik 537 ziren emakumezkoak eta 536 gizonezkoak.

Krisiak bie eragin die, emakumezkoen eta gizonezkoen baina proportzioan 35-39 urte bitarteko gizonezkoen artean nabarmen igo da langabezia. Egun langabetu gehien adin tarte horretan

dago: 90. 2008an, 65 zeuden. Emakumezkoen artean berriz, 30-34, 35-39 eta 55-59 adin tartean daude gehien: 80na pertsona. Kasu hauek ez da alde haundirik izan 30-34 adin tartean izan ezik; izan ere, 2008an, 57 langabetu zeuden.

Zerbitzuen sektorea eta industria, kaltetuenak

Sektoreei erreparatuz, zerbitzuetan dago langabezia gehiena Hernanin. 658 langabetu zeuden 2009ko abenduan eta horietatik gehienak emakumezkoak: 412. 2008an baino 121 langabetu gehiago zeuden sektore horretan joan den urte bukaeran. Krisiak eragina izan du baita ere industrian, 2008tik 2009ra 73 langabetu gehiago zeuden; guztira, 242. Sektore horretan gizonezkoak izan dira langabezian geratu direnak, batez ere. ||

❖ PLENOA

Ereñotzun auzo udala eratzea gaur onartu liteke

Plenoa izango da gaur, arratsaldeko 18:00etan, udaletxe-ko Pleno aretoan. Bertan, besteak beste, aztergai izango dute Ereñotzuko auzo udala eratzea, eta Haiti herriari elkartzuna adierazteko adierazpena. ||

❖ ELUR TXORI

Mus txapelketako finalak gaur, binakakoa eta banakakoa

Elur Txori elkarteak, binakako eta banakako mus txapelketako finalak jokatu dira gaur. Binakakoan, Rafa eta Javik Alvaro eta Pablora kontra jokatu dute. Hirugarren posturako lehian berriz, Valero eta Biurrarena arituko dira Ramon eta Peleiren kontra. Banakako txapelketari dagokionez, finala Inacio Bilbaok eta Jabier Otegi jokatu dute. Hirugarren postua eskuratzeko berriz, Patxi Lopezek eta Mikel Aierdik jokatu dute. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Urteko batzarra izango da gaur Biterin

San Joan Konpartsak urteko batzarra egingo du gaur. Batzarra Biteri kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Jendeari bertara hurbiltzeko deia egin dio elkarteak. ||

❖ HERRI BATZARRA

Ezker Abertzalearen batzarra gaur Biterin

Hernaniko Ezker Abertzaleak herri batzarra egingo du gaur Biterin, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. ||

TRIPA BETE NAHI?

sabemos castellano

taberna tripointzi

PINTKOLAK, RAZIOAK, ENTSALADAK, PLATER, KONBINATURAK

ZATOZ DASTATZERAK!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

BigMat
Aricota, s.a.

ALMAZEN MULTIESPEZIALISTAK

ERAIKUNTZA KOMUNA ETA ITURRIAK
ITURGINTZA MANPARAK
KALEFAKZIOA HIDROMASAJEA
GRES ETA AZULEJOAK KOMUNEKO ALTZARIAK...
PINTURAK HERREMINTAK
ATE METALIKOAK LANERAKO BABESA

HERNANI
Eraikuntzarako almagena: Ibaiondo poligonoa 30
Tel. 943 55 06 55
Iturgintzako almagena: Ibaiondo poligonoa 30
Tel. 943 55 20 94
Esposizioa: Ibaiondo poligonoa 30 Tel. 943 33 61 86
DONOSTIA
Esposizioa: Baleneros 10 - Tel. 943 45 11 11

URUMEA IKASTOLA

Haur Hezkuntza (2-6), Lehen Hezkuntza (6-12)

Matrikula: **otsailaren 1 etik 13 ra bitarte**

Non: **Urumean (Gay Mur eraikina, Larramendi 18)**

Ordutegia:
09:00 - 12:00 / 14:30 - 16:00
943 55 04 72

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Eguz**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Goizean fronte bat iritsiko da eta eguerdirako giroa ilunduz joango da. Arratsaldean euria egingo du. Elur-kota 1000 m-ren bueltan kokatuko da. Min.-1° / Max.10°.

BIHAR Zerua lainotuta egongo da eguztiaz eta euri giroa nagusituko da. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du zakar. Temperatura antzekoa izango da. (euskaime)

❖ ZUMITZA TXIRRINDULARI TALDEA 2010eko lizentziak jasotzera pasa daiteke dagoeneko

Zumitzako txirrindulari taldeak jakinarazi du 2010 denboraldiko lizentziak tramitatuta daudela eta dagoeneko jaso dituztela. Beraz, lizentzia eskuratu nahi duenak, jabetzetik pasa behar du jasotzera. ||



❖ MENDIRIZ MENDI

Asteburuan eskiatzera joan nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna

Mendiriz mendi elkarteak antolatuta, eskiatzera joango dira asteburuan, Cauterets-era. Izena eman nahi duenak gaur du azken eguna. Bulegotik pasa behar da, (Iturregi plaza z/g), arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Eskiatzera larunbatean aterako dira, goizeko 05:30etan, Atsegindegitik. ||

❖ GAZTE ASANBLADA Eski irteera, mendi martxa eta inauteriak hizketagai bihar

Gazte Asanbladako kideek bilera izango dute bihar Biterin, arratsaldeko 18:00etan. Bertan, hitz egingo dute eski irteeraren, mendi martxaren eta inauterien inguruan. ||

❖ GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu ziren Sandiusterri eta Elkano kale artean

Ikusteko betaurrekoak galdu ziren urtarrilaren 13an, Sandiusterri eta Elkano kale artean, eguerdiko 15:00ak aldera. Betaurrekoak emakumezkoarenak dira, graduatuak, pasta transparentezkoak eta patila berdedunak. D&G markakoak dira. Aurkituz gero, 690 067 642 telefonora deitu. ||

❖ SANTA AGEDA

Santa Ageda bezperan eskean ateratzeko entsaioa izango da astelehenean

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, santeskean aterako dira urteroko moduan, eta astelehenean entsaioa izango da Biterin, 20:00etan. Eskean ateratzeko 18:15etan bilduko dira Milagrosan eta 18:30etan abiatu. ||

👉 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Herritarrei abisua

Gure herria "dekoratuko" duten eta hondakinen poltsak edo kuboak zintzilikatu behar diren, barra teknikoan ezaugarriak irakurritako, ulertu dugunez, barra horiek hernaniarren etxeetako fatxadetan jarri daitezke. Espero dut Gobernu Taldeak, gure herriko fatxada ezberdinetan barrak jarri aurretik baimena eskatzea jabeen. Ideia honetan insistitu nahi dugu; izan ere fatxadak etxeetako jabeen-

nak dira eta bertan ezin da ezer zintzilikatu jabeek baimentzen ez badute.

Gobernu Taldeak eta Ezker Batua alderdiak ez badute erreferendumik egin nahi jakiteko hernaniarren zein iritzi duten atez atekoari buruz, sistema hau nahi ez duten hernaniarren ez deztela onartu beraien fatxadak erabiltzea.

Horrez gain, adi egon behar dugu zerbitzu hori emateko, kontratatuko diren

enpresa edo langileak zein sistemaren bidez kontratatuko diren jakiteko. Behin honaino iritsita, Alkatetzatik azaldu digute ez dakitela nola egingo den; hori bai dagoeneko prozedura martxan jarri da kamioi txiki bat eta haundi bat erosteko, kontenedoreak erosteko, 2000 zintzilikario erosteko, eta abar. Dagoeneko gastatu ditugu 557.464,91 euro.

Andoni Amonarraiz
*Erredakzioan euskeratua.

Atez ateko zalantzak argitzen

Ontzi marroia puskatu edo lapurtzen badidate zer egin behar dut?

Udalak lehen ordezkari berria emango dizu.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Karabelen. 60m2, 2 logela, sala, sukalea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m2, 3 logela, 2 komun, sukalea (osagai guztiek) eta igogailua. 442.000€. Deitu: 656 316 031.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA
www.oialumezar.com
☎ 943 55 29 38

Mikel Arozamena bidea, 16
20.115 ASTIGARRAGA

BASERRIKO SAGARDOA
GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA

✓ Ostegunetik igandera irekita
✓ Asteburuan eguerdian ere zabalik

Sagardo naturala
% 100 bertako sagarra

☎ 943 55 32 72 - 620 78 35 29
Ereñotzu auzoa - Hernani

Yaiza
descanso
armarios

keyton 2010 merkealdia
zure masajista pertsonala etxean prezio garaitezin batean

keyton, masaje besaulkietan munduko lehena

zure koltxoi denda hernanin
15 urte atsedena eta armairuak neurrira zuri eskaintzen

Agustindarren, 6 (Eroski berriaren ondoan) • Tel.: 943 556 201

Astelehenerdik ostiralera:
9:30 - 13:30 16:00 - 19:30
Larunbata: 10:00 - 14:00



LEHEN

4.997€

ORAIN

3.760€